


# Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko martxoak 4 / IV. urtea / 117. zenbakia

## Euskal ahotsik ez irratieta

Astelehenean desagertu zen 'Txurita Beltz', Radio Nacionaleko euskarazko saioa. Nafarroa osoan entzuten zen bakarria izanik, SER eta COPE kate handiek hartutako bideari jarraitu dio, horrela, RNEk. Eraispin hau azaltzeko euskararekiko axolagabekeria eta irratiak berak bizi duen egoera azaldu behar da. Izan ere, 60 lanpostu inguru galdu dira aurten Nafarroako kazetazintzan, eta gero eta gehiago jotzen da zentralizaziora, tokian tokiko saioak ahaztuz. Gauzak horrela, euskara behar bezala jorratuko lukeen irrati publikoa eskatu dute batzuek jada, ohizkoen menpe, boteretsuen menpe, ez egoteko.



Amen eta omen

AINGERU EPALZA



### Kaka esplikatzen

Zortzi urte egin ditugu dolutan, Erriberako haurrei erori zaien madarikazioez intzirik. Hamalau aldiz atera gaituzte karrikara, euskarazko irakaskuntza Nafarroa osoan eta maila guzietan nahi genuela aldarrikatzera. Ugaldeak eta are itsasoak ere gainezkatu dituzte gure negarrek; kamioi bete zapata urratu, gure ibilaldiek.

Oker geunden, nonbait. Horrek denak kaka balio duela esplika-

tzen hasi zaizkigu eta, itxura denez, hala errepikatuko —'kaka! kaka! kaka!'—, kantaren leloa burmuinetan ongi itsasi arte.

Ergel lerre-jarioak ere badaki, Nafarroako Parlamentuak Euskari buruzko Legea aldatzeko egun hauetan darabilen proposamen murrizak ez dituela gure arazo nagusiak konponduko. Bere interes partidistez eta galbahe ideologiko partikularrez harata ikusten dakienak usma dezake, ordea, euskarazko irakaskuntza ez-euskaldunentzat jotzen den lurraldeko eskola publikora nahiz Unibertsitatera —zergatik ahanzten dira bigarren alderdi honetaz lege proposamena gaitzesten dutenak?— eraman ahal izateak gerora begiratzat izaten ahal duen garrantzia. Ulertu ere, ederki ulertu dute

hori 'Diario de Navarra-ko' editorialistek edo Aurelio Arteta bezalako sasi-filosofo erdaltzaleek. Horiek, zer, eta liskarrak, bake sozialaren hausdura eta, finean, apokalipsiaren pareko egoera iragarri dute, Parlamentuak proposamen apal hau onetsiz gero. Horregatik, euskaltzaleen eremuan, H.B.ren inguruko artikulistei bertzelako letra baina doinu berdintsua aditzen diedanean, frenopatiakoaren atarian ez ote garen, duda-mudak zaizkit sortzen.

Eskualde ez-euskalduneko ikastolen etorkizunaz kezkatutik agetzen dira, Nafarroako Ikastolen Elkarteak publikoki eskatu

duelarik argudio hori ez dadin erabili proposamenari kontra egiteko. Halaberean, aldaketaren zartarrari beren programaren ederra kontrajartzen diote. Eta hain da eder programa hori —neronek ere sinatuko nuke, seguraski—, non denei esplikatu nahi diguten. Eskertuko dizkiet argibideak, baina horrekin batean azal diezadatela, faborez, zein pauso emanen duten hura gauzatzeko, noiz-norekin negoziatuko duten, zer emanen duten trukean eta, hondarrean, nola moldatuko diren, Nafarroako

gaurrengungo egoera politikoan lorpen ttikiena ere erdiesteko behar diren gainerakoetan. Izanez ere, penagarria litzateke azken judizioaren esperoan —Egun Haundia, badakizue— egon behar izatea horretarako.

Badu zerik, honek. Egarrituari hurrupada ukatu nahi diote botil bete behar duelako aitzakian. Kaka dela erabaki dute eta hala ariko zaizkigu belarrira —'kaka! kaka! kaka!'— bozketa ailegatu arte. UPNko parlamentariak koruak eginen dizkiete egun horretan. Horiek ere, kantatu, ederki kantatzen dute.

### MINTZALDIAK

**'Nekazari iraultza**, Mexikoko mugimendu zapatista' gaiari buruzko mintzaldia eta pelikula baten emanaldia izanen da heldu den astelehenean, martxoak 7, Zizur Nagusiko Kultur Etxean. Etorkezuna Eztabaida Foroak antolatuta. Fito Jimenez mintzaldiaren ostean, 'Viva Zapata' izeneko filma botako dute. Arratsaldeko 19.00etan hasiko da.

**Errusiaren egoerari** buruzko mintzaldia eskainiko du Lourdes Argiñanok heldu den asteazkenean, martxoak 9, Zaldiko Mالدiko elkartearen. Bertan urtebete eman eta gero, Errusiako egoeraz mintzatuko da, arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

**'Guatemala'** nazioari buruzko mintzaldia eskainiko du Javier Aisa Mugarik Gabe taldeko kideak larunbat honetan Abaurreginean. Etxabarregoa Garrantzako elkarteak antolatuta, arratsaldeko 19.00etan hasiko da, eta hitzen ostean, bideo emanaldia botako dute.

**'Emakumea eta HIESa'** gaiari buruz mintzatuko dira Asun Roldan eta Ana Urmeneta heldu den astelehenean, martxoak 7, Hizkuntz Eskolan. Koordinadora Feministak antolatutik, arratsaldeko 19.30etan hasiko da.

### IKASTAROKAK

**'Nafarroako Historia:** oro garaikidea' izenburuko ikastaroa antolatu dute GITE elkarteak eta Arturo Kanpion euskaltegiak hilabete honetarako. Martxoaren 9tik 25era izanen da, asteazken, ostegun eta ostiralean. Josu Chueca, Emilio Majuelo, David Mendaza eta Patxi Larrion historiariek emanen dute. Informazio gehiago, 22 59 91 telefonon.

**'Euskal Kantagintza'** gaiari buruzko ikastaroa hasiko da heldu den astean Iruñean, GITE elkarteak eta Arturo Kanpion euskaltegiak antolatuta. Martxoaren 7an, 12an eta 14ean izanen da, arratsaldez, egun bakoitzean hizlari ezberdinekin: Patziku Perurena, Juan Mari Beltran eta Maite Idirin. Matrikula egiteko, GITE elkartera hurbildu behar da, edo telefonoz deitu.

### BESTELAKOAK

**'Elurraren bila'** izenburuko diapositiba emanaldia izango da gaur Nafarroa Kirol Elkartearen, Jarauta kalean. Arratsaldeko 20.00etan hasita, Belen Eguzkiza eta Eugenio Gorrotxategi eskizaleek zuzenduko dute.

## NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

### Espainolak eta nafarrak

Azken udal hauteskundeen ondoren Joxean zinegotzi hautatu zuten Imotzen (30 bozka inguru izan zituen faltan alkatetza lortzeko). Ondorengo hilabeteetan Imozko udaletxearen lanak amaitu ondoren inaugurazio ekitaldia antolatu zuten Etxalekun. Harat abiatu zen Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuako lehendakariordea. Ardo gorria,

diren hitzak gurutzatu eta gure intereseko gaiaren ildotik eutsi zioten elkarrizketari.

—Zuek, HBkoek, mendealdeari so, Euskadiri so egin beharran, iparralderuntz begiratu beharko zenukete gehiago, Baxe Nafarroari begira. Azken finean, denok gara nafarrak!

UPNk uko egin dio Nafarroa Garaia eskuratu ditzaken es-

trategia abertzale aunitzei itsasoaren kiratsa darie oraino. Itsasoaren ur gazietan ez da amuarrainik, ez ontto beltzik; eta are gutxiago zainzuri eta pikillo piperrik.

UPNk aldiz, Nafarroa/Euskadi dikotomia azpimarratuz eraiki du bere filosofia politiko-autonomikoa. 'Navarra es Navarra'. Baina, errotik, espainoltasun/keriaren oinarri-



txistorra, urdaiazpikoa eta elkarrizketarako giro egokia.

Halako batean, Joxean eta Miguelek topo egin zuten pikillo piperrin aitzinean:

—Zu ere bertako zinegotzi al zara?

—Bai.

—EAKoa ala HBkoa?

—HBkoa.

Miguelek eskua eskaini eta Joxeanek estutu zion.

—Polita udaletxea, gero!

—Beharra bagenuen!

Egoera horretan ohizkoak

kuduntzak —konpetentziak— kudeatzeari —gestionatzeari—. Aitzakia, hein handi batean bederen, Nafarroako Foru Komunitateak botere gehiago izatearen truke beregain hartu beharko zukeen zama ekonomiko jasanezina izan da.

Arestiko eskena eta azken esaldien arteko kontrajarpenak hausnarketarako aukera damaigu. Alde batetik argi dago Nafarroako alderdi abertzaleak, orohar, hondartzara begira egon direla eta daudela. Es-

rik sendoena izateari ez dio sekula uko egin. Baten batek UPN-n 'Nafar Nazionalismoa' aipagai izan duen bakoitzean, Jesus Aizpunek egia hutsa denaren baieztapena gogora ekarri du: 'Nafar Nazionalismoa Euskal Nazionalismo bihurtuko da beti'. Eta hain esaera argi, txukun eta bidezkoa entzun arren, Nafarroako abertzaleek ez diote ideari heldu. 'Tanborrada' baino, hobe Garaziko bestak. Ez ala?

### ASTEKO PERTSONAIK



**Mikel Petrirena**  
EHNE-Nafarroako burua

A beltzain eta Nekazarien Elkartearen Koordinadorak (COAG) batzorde berria izendatu zuen joan den asteburuan, eta kargu berrien artean, Mikel Petrirena EHNE-Nafarroako presidentea aukeratu dute. Orain arte EHNEko burua den Manu Marañonek izandako kargua hartu du Petrirenak, eta berarekin batera, Katalunia, Andaluzia, Gaztela-Leon, Aragoi eta Kanariar irletako ordezkariak dira batzorde berriko kideak. Batzorde berriak Gobernuaren nekazaritza politika aldatzeko eskatu zuen bildu eta berehala, beraien ustez «ezinezkoa baita mundu erruralak bizirik irautea ohizko abeltzain eta nekazariak ez badaude». Beraz, politika aldaketa egin beharreko gauza dela azpimarratu zuten, «etorkizunean gure lanetik bizitzeko aukera izan dezagun».



**Kontxi Juaristi**  
Koordinadora Feministako bozeramailea

Heldu den asteartean ospatuko da Emakumearen Eguna, eta hda goeneko, ekitaldi ugari prestatu dituzte talde ezberdinetako kideek; batzuk dagoeneko hasiak dira. Urteak aurrera doaz, baina emakumeen berdintasuna oraindik ere urrun dago, eta krisi garaietan areagotu egiten dira emakumeen arazoak, batez ere lan munduan. «Guztientzat daude problemak, badakigu, baina emakumeok lan eta lan egin beharra eta tutik kobratu gabe, gainera», Kontxi Juaristi Koordinadora Feministako bozeramaileak adierazi zuenez. Egungo egoera kezagarria dela dio, «Nafarroan lan egiteko adinean dauden hiru emakumetatik bat bakarrik ari da lanean, kontratu eta soldatarekin behintzat».

### AHAZTU GABE!

### BERTSOLARITZA

**Bertsolari Txapelketa** abiatuko zaigu igande honetan, martxoak 6, Saran. Bertako kiroldegian zortzi bertsolari ariko dira, horien artean, Manolo Arozena txapelduná. Goizuetarrarekin batera, lau gaztek kantatuko dute, hots, Xabier Silveirak eta Iñigo Olaetxeak, lesakarrak biak, eta Amaia Telletxea arantzarrak. Laugarrena, Urko Atxotegi lapurtarra izanen da. Gainerako hirurak bertsolari arituak dira: alde batetik, Txomin Ezponda jatsuarra, txapela behin batean jantzitakoa, eta, bestaldetik, Jean Pierre Mendiburu heletarra, pare bat aldiz txapeldun izandakoa. Azkainetik, Fermin Mihura joanen da Sarara. Kanporaketa saioa 16.00etan hasiko da. Gaijartzailea Mikel Taberna izanen da, eta epaimahaiko hauexek izanen dira: Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Beñat Soule, Mixel Itzaina, Jean Pier Etxegoin eta Joxe Urroz. Eguna girotzeko trikitilariak alaituko dituzte bazterrak. Soinu joleak Mirentxu Ibarguren eta Leire Arbelbide garzarrak izanen dira.

### jenero xumekoak

#### Hiria

Xake taula bat bailitzan, gauaren ilunean leihotako argiak piztu-itzalian ibiltzen dira. Baina badago argi bat sekula itzaltzen ez dena. Hortxe bizi den erreginak Fuerzaselektrikasean lan egiten du, antza denez.

ELIAS SARASA - ERRO

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2


Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



### Iratxe



Iratxe Monasterioan 15 milioi pezetako lanak egingo dira.

## Konponketak monasterioan

IRUÑA

Iratxe Monasterioa konpontzeko eta berritzeko aurrekontua onartu berri du Nafarroako Gobernuak. Irantzu eta Leireko monasterioetan ere zenbait aldakuntza egingo dira, denetara 33 milioi pezetako aurrekontuarekin.

Iratxe Monasterioan sakristian eta sala kapitularrean egingo dira lanak, eta klaustro berriaren lehen solairua pintatu eta elektrizitatea paratuko da. Horrekin batera, aipatu klaustro berriaren azken solairuko sabai faltsuak eta alde bat botako dira, aitzinaldeen berritze lanak egin ahal izateko. Halaber, klaustroko lorategia eta eraikin osoaren saneamendua egingo da aurtén.

Orotara, 15 milioi pezetako aurrekontua dute lanak.

Irantzuko Monasterioan hego aldean dagoen eraikina konponduko da, eta monasterio osoko zurgin lanak eta teilatuak bukatu eta txukundu egingo dira. Lan hauen kostua 10 milioi pezetakoa izanen da. Leiren, bestalde, iazko lanekin jarraituko da, eta hodiak eta zurgin lanak prestatu eta bukatuko dira. Aurrekontua, kasu honetan, zortzi milioi pezetakoa izanen da.

Hiru monasterio hauek Nafarroan dauden garrantzitsuenetakoa dira. Iratxe monasterioa da, eta denboraren poderioz, garrantzi handia hartu zuen, bai kokaleku apartagatik bai bertako abate eta Nafarroako erregeek emaniko laguntzagatik. Horre-

kin batera, monasterioa handitu egin zen, eta XIII. mendean bukatu ziren lanak. Orduan hasi zen krisi garaia, XVI. mendean berriro altxatuko zena. Bi garai hauek ederki antzematen dira eraikuntzan.

Irantzuko Abartzuzan dago, Andia mendiaren magalean, eta XI. mendekoak dira lehen aipamenak. Urte askotan oso utzita egon ondoren, 1942an hasi ziren berritze lanak, eta 1945ean Teatiniarrak bertan kokatu ziren. Leirekoa da, hain segur, ezagunena. Mendizerraren magalean, famatua da oso, nola eraikuntzaren, hala bertako monjeen lan kulturalagatik. Izpirituarendako osasungarria eta gomendagarria da bertako kantu gregorianoa behin, bederen, entzutea.

### Otsagabia

## Iratin eta Erremendian onddo barrutia zedarritzeko baimena eman du Gobernuak

IRUÑA

Nafarroako Gobernuak Iratin eta Erremendian onddo barrutia sortzeko baimena eman du, Jose Cruz Perez Lapazarán Nekazaritza, Abeltzantza eta Mendi kontseilariak sinatutako lege foral baten bidez. Hau da Nafarroako mendiaren babes eta garapenerako legearen babesean sortzen den lehen barrutia.

Lege horretan jasotzen denez, fruitu, sendabelarrak, perretxiko edo onddoak eta antzeko produktuen ekoizpenak basoaren oreka eta etorkizuna arriskuan jartzen baldin badu, administrazioak

aprobetxamendu hauek arautzeko eskubidea izango du, beti ere Ingurugiro Sailak txostena egin ondoren, eta bertako entitateek barrutia zedarritzeko baimena izango dute. Hau da, beraz, lege honek jasotzen duen eskubide hau indarrean jartzeko lehen saioa, beste tokietan horrelakorik baldin badira ere —Ultzaman, Belaten—, ez baitziren legezkoak.

Irati eta Erremendia aldean, ohizkoa da produktu naturalen bilketa, eta horien artean azpimarratzekoak dira onddo beltzak, perretxikoak —bereziki esnegorriak— eta marrubiak. Barrutia-

rekin —Gobernuaren prentsa oharraren arabera—, Zaraitzuko biztanleen etekinak gehitzea da helburua, abeltzantza eta nekazaritzatik eskuratzen diren gutxi horretaz gain, beste diru sarrera izan dezaten.

Irati oihanak 6.000 hektareako zabalera dauka, eta horietako 5.000 baso da, eta gainontzekoak larre. Basoan pagoa da nagusi, baina izaina eta pinua ere ageri dira erruz. Azken urteotan bisitari eta turista ugari aukeratu dute inguru hau, hainbat kirol egiteko eskaintzen dituen aukerengatik eta bere baso apartak direla eta.

### Aribe

## Irati Irratiak festa antolatu du

IRUÑA

Irati Irratiak Nafarroan ari diren euskarazko beste irratiekin harremanak landu eta sendotzeko festa antolatu du martxoaren 20rako, herrian bertan. Horretaz gain, inguruko jendearen artean irratia gehiago ezagutaraztea dute buruan antolatzaileek, kontuan harturik iratiak urtebete honetan izan duen erantzun makala.

Izan ere, joan den urtarrilean sortu zenetik, nekez egin du bidea Irati Irratiak. Egun lagun bakar bat ari da lanean, eta talde baten beharra azpimarratzen du irratia aurrera egiteko. «Kontzientzia-zio falta bada». Hori dela eta, «festa giroko egun baten antolatzeko garaia badela» uste izan dute Ariben. Helburuak? «Gure burua gehixeago ezagutzera eman inguruko biztanleei; bazkide gehiago inguraztea irratia-rendako; inguruko jendeari euskal giroko festa eskaintzea, eta, besteak beste, «euskara baliatuz Nafarroan/etan diharduten eremu mugatuko irratiekin hartu-emanak sendotzea, lan bateraturako bideak urratzeko».

Egun horretan zuzeneko emaldia egingo du irratia, eta unitate mugikorra eraman nahi dute bertara, nahi hori gauzatu ahal izateko.

### Mutilagoiti

## Zadarre ugaldako kalteak salatu ditu ANAT-LANEK

IRUÑA

ANAT-LANE talde ekologistak berriro ere salatu ditu Nafarroan egiteko ari den obra batek sortuak kalteak. Kasu honetan, Zadarre ugaldan egiten ari diren lanak kritikatu ditu taldeak. Ezaguna denez, Mutilnova izeneko urbanizazioko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) zenbait lan direla eta, Zadarre ugaldaren ertzetan ubideak aldatu edo desagertarazi egin dira. ANAT-LANEren ustez, «ulerrezina» da nola, gaur egun, oraindik, ingurugiroa proiektu publikoek egokitu behar zaie, proiektu publikoak ingurugiroari egokitu behar. «Ugalde hondatuak zaindu eta konpondu behar diren, obra handien azpian lurperatzen dira». Horren aurrean, Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailean salaketa paratu du taldeak. Duela gutxi antzeko salaketa egin zuten ekologistek Argan egiten ari ziren lanak zirela eta. Orduan ere Oblataseko zubia egiteko ubidea aldatu zen.

Navarrieriako iturritik


Juan Kruz Lakasta



## Donibane is death

Gabriel Arestik bere aitaren etxea bezala, koadrilakook gazte-gaztetikan topaleku izan dugun taberna defenditu izan dugu beti, otsoen kontra ezezik, Iruñeko gaua hornitzen duten basanialia guztien aurka ere bai. Berotzen direnean izerdia isuri ordez kolonia botatzen duten makina bat *pijo*, dozenaka praka estudun *friski* mendizale, hainbat hil zurrutodun *okupa*, Jarauta kaletik etorritako Monimbo eta Dr. Martins-zale amorratuak diren hamaika gazte... Horiek guztiak eta beste asko jasan behar izan ditugu, baina gure aitaren etxeak, gure topalekuak, zutik iraun du.

Joan den ostiralean, baina, monotoniak jotak emozio berrien beharra genuela eta gure taberna, Caldereria kalea, Navarrieriako iturria eta Jarauta karrrika gibelean utzi genituen, eta Donibane auzorantz abiatu ginen, atzerrirantz finean, bakalao eta karaoke bila. Errege Magoak gurusoak zirela jakin nuelarik kolpe handia hartu nuen, eta kasko orduko kolpearen parekoa izan zen joan den ostiralekoa. Donibane auzoa martxa pijoren non plus ultra zelakoan nen-




goen, eta Donibane is death.

Lehenik eta behin Plural bakalao tabernan egon ginen. Gu ailegatu arte, singularra zen nagusi, koadrila bakarra baitzegoen bertan. Lehen porrot horren ostean Pink Flyko karaokearen bila abiatu ginen, baina itxirik zegoen, Factory martxaren demasa omen den taberna eta La Traveko taberna guztiak bezala. Reverendos eta Mas y Mas dantzakietan sarterik ez zegoela ikusi eta gero, Kartzela ingurura itzuli ginen. Aski ongi 'ulertzen' dutenentzako pare bat taberna topatu genituen, baina gu ez genbiltzan horren bila, eta azkenean Opera pub-ean amaitu behar izan genuen gaua. Berrogei urte edukiko zituen bertako gazteenak. Maruja eta Pepe horiek guztiez inguratutik, zera etorri zitzaidan burura, Errege Magoak eta Donibane ez direla existitzen, gurusoak direla Errege Magoak eta Donibane.



**E**spainiako Radio Nacionalen duela hamar urte sortutako 'Txuri ta beltz' irratisaioaren azken emanaldia izan zen astelehenean. Fermin Erbiti kazetariak izan zuen kate pribatuek hasitako bidari amaiera emateko zailantza ohorea, horren ondotik ez baita Nafarroa osoan entzuten den euskarazko emankizunik.

SER hasieran, gero COPE eta azkenean Radio Nacional, Espainiako hiru kate handiek zituzten euskarazko saioak desagertu egin dira, axolagabekeriak eta irratiaren beraren egoerak jota. Ondorioz, soilik udal irratiak eta Euskalerrriak eta Xorroxinek emititzen dute Nafarroatik bertatik euskaraz. Azken hauek, ia legez kanpo. Eta harri-garriena zera da: Hizkuntz Politikak ematen dituen dirulaguntzak aprobetxa ditzakeenak, gogorik ez; egunero euskaraz ari denak, aukerarik ez.



JUAN CARLOS RUIZ/JOXEAN APEZTEGIA

## Euskara, irratitik kanpo

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Astelehenean amaitu zen hamar urtetako historia Iruñeko Radio Nacionalen. Asteleheneko hamarretan, 'Txuri ta Beltz' saioaren azken emanaldiarekin. Orduantxe gertatu zen eraispen baten azken urratsa. Irrati 'handiek' euskararekin egin duten eraispena, alegia. SER izan zen aurrenik, COPE ondotik, eta orain Radio Nacional. Horren ondotik, Nafarroa osoan entzuten zen euskarazko irratsaio bakarrak agur egin behar izan du.

'Behar', behartuta izan baita desagerpena. Duela hilabete Madrilan egin zen bileran, Espainia osoko erredaktore buruei —eta haiekin batera Hego Euskal Herriko laurak— Espainiako irratiak egin nahi duen birmoldaketaz argibideak eman zitzaizkien. Horren barruan, tokiz tokiko programazioa —euskarazko saioak barne, jakina— kentzeko erabakia. Euskal ordezkariak euskaraz zerbait egin beharra azpimarratu zuten, baina Diego Carcedo irratiaren buruaren erantzuna esanguratsua izan zen oso: «Hau Espainiako Radio Nacional da, eta euskaraz ez du tokirik». «Harrigarriena da», dio Fermin Erbitik, astelehena arte euskarazko saioaren arduradunak, «Kataluniak eta Galiziak euren hizkuntzez saioak izango dituztela. Eta hemengo programazioan bada tokia euskararentzat, baina ez da horretarako borondatearik».

Bost urte eman ditu bertan ka-

zetaariak, Kike Diez de Ultzurruni eta Miren Josebe Razkini lekukoa hartu ondoren, eta desagerpena une onenean heldu zaiola dio. «Nafarroa osoan entzuten zen euskarazko saio bakarra izanik ere, jendea ohitzen hasia zen. Tuteratik deitu zidaten azken saioa zela esan nuenean, nola zi-


tekeen, pena zela... eta penagaria da, benetan, desagertzea».

**JAVIER PAGOLA AITZINDARIA** Antzeko sentazioak bizi zituzten aurretik Javier Pagola SER-ko eta Josetxo Azkona COPEko kazetariak ere. Azkonari duela urtebete kendu

zioten irratsaioa, zortzi urte antenan eman ondoren, eta berari ere une onenetan heldu zitzaion agur esateko txanda. «Ordubetekoa —hasieran baino gehiago— zen irratsaioa eta nahiko onartuta zegoen, bai langileen artean nola entzuleen artean. Momentu onenean etorri zen mozketak».

SER-ko Radio Requete —ondoren Radio Pamplona— izan zen aitzindaria Nafarroan euskara programazioan sartzean, Javier Pagolak egiten zuen saioaren barruan. Hasieran kolaborazio solteak izan ziren, baina 1978an erredaktore bat —Mikel Bujanda— hartu zuen irratiak, espreski euskarazko saioa egiteko. «Horrek gehiagorako» ez zuela ematen ikusi zuenean, Euskalerrria Irratira joan zen Bujanda, eta Pagolak jarraitu zuen bere ekarpenarekin, gaur arte. «Hemen ez dago inolako planteamendurik», azaldu du kazetariak, «eta nire borondate hutsez ari naiz. Elkarrizketak eta komentario laburrak egiten ditut, baina esan daiteke orain ez dagoela ezer euskaraz». Horren arrazoia, egun irratiaren antzematen den helburu falta dela dio Pagolak. «Lehen bazen talde on bat, eta helburuak bagenituen, eta euskara zen horietako bat. Orain ez da helbururik».

Kazetari guztien ustetan, Nafarroako euskaldunek badute aukera polita euskara hutsez emititzen duten irratiarekin, baina denek azpimarratu dute erdarazko irrati handietan ere euskara



Fermin Erbiti.

JOXE LACALLE

**N**afarroa osoan entzuten zen euskarazko saio bakarra, Radio Nacionaleko 'Txuri ta beltz', astelehenean desagertu zen.

sartu beharra. «Irrati horietan euskara sartzean», dio Azkonak, «gogoratzen zaio euskalduna ez denari euskaldunak badirela, bagarela, eta horrek badu bere garrantzia». «Euskaraz ez jakiteak zenbait gauza ez jakitera eramaten du», azaldu du Bujandak, «eta erdaldunek jakin behar dute badela hemen beste hizkuntza bat. Ezin dira saio luze eta astunak egin, baina konstantzia utzi behar da».

**KONTZENTRAZIO IZUGARRIA IRRATIETAN**

Prozesu honen guztia-  
ren arrazoiak? Euskararen inguruan axolagabekeria, eta irratia bera igarotzen ari den unea. «Hasieran sartzen dute euskara, folklore moduan», aipatu du Azkonak, «baina konturatzen direnean gauza onak egin daitezkeela, atzera jotzen dute, beldurtu antzean». «Nafarroako Parlamentuko irratitelebistaren inguruko gaiak buruz aholkularitza taldeak», dio Erbitik, «txostena egin zuen iaz, eta talde guztien onespenerekin euskara gero eta gehiago sartu behar zela onartu zuen. Beraz, salaketa egin liteke, baina ez da borondaterik».

Bestalde, Espainiako irratigintzan gertatzen ari den kontzentrazio izugarria —merkatuaren % 80 lau enpresaren esku dago— buru asko moztzen ari da, eta ahulenak bikoitza jasotzen. Horregatik, Pagolaren ustetan, arazo nagusia ez da euskara, zentralizazioa baizik. «Nafarroan urtebetean 60 lanpostu kendu dira kazetagitza, tokiz tokiko programazioak desagertzen ari direlako. Gainera, publizitate merkaturak telebista jaten ari da, eta irratia erantzako une txarrak dira hauek. Hori, jakina, ahulena ordaintzen du lehendabizi, eta hemen euskarak».

**DIRULAGUNTZAK ALFERRIK GALDUTA**

Nolanahi ere, euskarazko saioak egitea errentagarria ateratzen zaio askori, Nafarroako Diputazioaren dirulaguntzak direla eta. Radio Nacionalek, kasu,


2.500.000 pezeta jaso zituen iaz Erbitiren saioarengatik, teknikariaren eta mintzailariaren soldatak ordaintzeko adina. Dirulaguntza horiek galtzen diren bitartean, euskaraz lanean ari diren irratiek —Euskalerrria Irratiak edo Xorroxinek, besteak beste— ez dute sosik jasotzen. «Hizkuntz Politikaren dirulaguntzak», azaldu du Bujandak, «gaizki bideratuta daude. Medio askok ez dute aprobetxatzen, eta euskaraz ari direnentzako debekatua daude». Dirulaguntzak jaso ahal izateko emititzeko lizentzia indarrean eduki eta Nafarroan egoitza edo edizio berezia izan behar da. Radio Nacionalekin batera, Espainiako Telebistak (TVE) —bi milioi pezeta—, Karrape Irratiak —milioi terdi—, Irati Irratiak —1.800.000—, Aralar Irratiak —2.600.000— eta INPONSak —300.000— jaso zuten dirulaguntzak iaz. TVEk ere iaz kendu zuen ordu erdiko euskarazko saioa, Erbitik berak egindakoa.

Eta arazoa, askoren ustetan, ez du konponbide erraza. «Izateko-

**I**rratiko buruaren erantzuna esanguratsua izan zen oso: «Hau Espainiako Radio Nacional da, eta euskarak ez du tokirik».

tan, irratiko publikoaren eskutik, euskara ez baita errentagarria». Horretarako, Nafarroan irratiko publikoaren sortzeko aukeraren alde egin du Fermin Erbitik. «Madrilek dauka beti azken erabakia, eta Nafarroatik euskaraz zerbait egin behar dela esaten bazaie ere, dirua eskatzen dute, eta haien interesekoa ez denez...». Honen inguruan, gogoratu behar da lizentzien azken kontzesioa egin zenean Aladino Colin orduko gobernaren bozeramaileak esandakoa. Parlamentuan azaldu zuenez, Radio Nacionalek lau orduko euskarazko programazioa egiteko asmoa zuen, Radio 4 katean. Katea desagertu egin zen aspaldian.

«Horregatik, beharrezkoa litzateke irratia bat Nafarroa osorako», berretsi du Erbitik, «tokian tokiko irratien kolaborazioarekin, edo, dagoen hutsa betetzeko. Eta jakina, hor euskarak tokia beharko luke. Edo irratia instituzionala, edo daudenei dirulaguntzak». «Irratiak beren tokietan bizi dira», dio Pagolak, «eta errealitateari begiratzen diete. Eta irratiko publikoetan euskararen presentzia derrigorrezkoa da. Hala ere, orain ez diot soluziobiderik ikusten».



Xorroxin Irratia dute helburu udal irratia askok.

JOXE LACALLE

## Itxaropenerako uhinak

A.B. / IRUNEA

Irrati handien euskarazko saioen desagertzearekin batera udal irratia ugaltu egin dira Nafarroan azken urteotan, nahiz eta, gehienetan, arazo ekonomiko larriak izan. Aukera ez da makala: Xorroxin eta Euskalerrria Irratiak gain, Lekunberriko Aralar Irratia, Aezkoako Irati Irratia eta Leitzako Karrape Irratia zabaldu baitira azken hiru urte hauetan. Sakanan ere bada horretarako asmoa, nahiz eta Etxarriko Udalaren eta Mankomunitatearen artean arazoak izan, izan ere.

Proiektu guztiek badute zenbait parekotasun, batez ere lehendabiziko urteetan. Baliabide gutxi, esperientzia urria eta jendearengana heltzeko arazoak izaten ohi dira, baina herrietako albisteak estimatzen direla nabari da berehala. «Irulegi Irratikoek lehendabiziko urteak oso gogorak zirela esan ziguten» aipatu du Joxe Irati Irratikoak, «baina gero hasten direla emaitzak jasotzen». Iazko urtarrilaren 22an sortuta, Aezkoako Juntak bultzatuta, ibarra berpizteko neurrietako bat zen irratia, baina, helburua bera bezalaxe, nahiko lan. «Hemen bada arazo handia, batzuek ez dakite euskaraz eta besteak bakarrik aezkeraz. Oso konplikatu da». Programazioaren % 60 inguru euskaraz egiten dute, eta Aezkoan bizi den ezkontasunak kutsatu egin du, nonbait, irratia bera ere. «Hemen behar da talde bat laguntzeko. Jendeak askotan esaten du irratia alde dagoela, baina lan egitera inor ez da agertzen, beraz, kontzientziazioa behar da».

Egun pertsona bakar bat ari da bertan lanean, eta beste lagun baten eske ari bada ere, diruak dena

ez lukeela konponduko dio Joxek. «Dirua bada arazoa, baina diru gehiagorekin ez litzateke jende gehiago lortuko. Jendearen erantzunik eza da arazoa, eta oraindik ez dugu asmatu». Horretarako talde baten beharra azpimarratu du Joxek. «Aurrera joan da irratia, baina dena aldatuta».

**ARALARREN EMAKUMEZKOAK NAGUSI**

Lekunberriko Aralar Irratia duela hiru urte sortu zen, eta lehen urteetako gora-beherak ahaztuta, finkatzeko bidean dagoela diote bertan. Larraun, Araitz, Basaburuan eta Imotzen zabaldu, egindako inkesta batek bertako % 60ek irratia aditzen dutela azpimarratu du Edurne Agirrezabalagak. «Eta hori kontuan harturik Basaburua eta Imozko hainbat herritara ez garelako iristen, eta haurrentako saiorik ez dugula». Irratiaren entzule gehienak

emakumezkoak dira, eta funtzioa oso ongi onartuta dagoela azpimarratu du mintzalariak. «Hemengo herriak oso sakabanatuta daude, baserri asko dago, eta jendeak hemengo berriak aditu nahi ditu, askotan emakumeak ez direlako etxetik ateratzen».

Arazoa, beti bezala, dirua. «Lau orduko saioa egiteko bi lagun gutxi dira, eta oraindik ez ditugu lortu herrietan berriemak, azpiegitura falta zaigu». Egun Lekunberriko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jasotzen ditu Aralarrek, baina inguruko kontzejuek ere parte hartu beharko luketelakoan daude irratian. «Animatzen ez badira, gerora begira egoera nahiko zaila izanen da».

**KARRAPE OTORDUETAN ETA GUZTI**

Gazteena dugu Karrape Irratia, Leitzan duela lau hilabete sortu zena. Gazteena eta animosoena, antza. «Badirudi ongi dabilela, jendeak esaten digulako otorduan lehen ez zuela ezer aditzen, eta orain irratiarekin ari direla». Arazoa —nork ez?— esparru txikia betetzen duela. «Leitzan berri gutxi dago, eta beti bilatu behar. Eroturik ibiltzen gara askotan». Jendeak, hala ere, ongi onartu du soilik herrietako berriak ematen dituen irratia. «Jendeak hori nahi du. Sarajevo edo beste gaiez hitz egiteko gu baino jende prestatua dago edozein irratitan». Beren helburuetako bat herri gehiagotara heltzea da.

Sakana aldean ere aspalditik ari dira irratia sortzeko asmoarekin, baina Etxarriko Udalaren —frequentziaren jabea— eta Sakanako Mankomunitatearen artean ez dute, oraindik, akordioirik lortu.



Josetxo Azkona.



Nafarroako Banakako xake Txapelketaren bostgarren ihardunaldiko partida, 1994ko otsailaren 19an jokatu.

Jesus Javier Cortes (2.265 ELOkoa, 2. rankingean)— Santiago Karasusan (1. rankingean).

1.Zf3,e6; 2.c4,f5; 3.d4,Zf6; 4.g3,d5; 5.Ag2,c6; 6.0-0,Ad6; 7.Af4. Erabaki eztabaidagarria. Helburua: partidaren lasaitasuna eta oreka apurtzea. Txuriek berdinketa baino gehiago nahi dute, eta jokoa nahasteko prest daude. 7...Af4; 8.f4,0-0; 9.bZ-d2, bZ-d7; 10.e3, Eh8; 11.Ze5,Ze4; 12.Ze4, Ze5; 13.d-e5,f-e4; 14.f3,f3; 15.Gf3,Ad7. Beltzek ez dute denborarik galtzen ('c4'ko peoia jenez, adibidez), eta defentsa behar bezala antolatzeari ekin diote.

16.Dc2,g5; 17.Gh3,Gf7; 18. Gh5, f4; 19.f4,c4; 20.Ae4, De7; 21.Gf1, Gg8 xa; 22.Eh1, fG-g7; 23.Dc4,c5. Alfil txuriak ez dauka zaldiaren peoia jaterik, 'Ae8' jokaldira etorriko litzatekeelako. Beltzen asmoa urrutiago doa: Alfilarren diagonal zirikatzeko, eta ahal izanez gero, menperatzea. 24.Dd3,De8; 25.Dh3, De7; 26.Gh6,b6; 27.Gd1, Ac8; 28.Df3, c4; 29.h3, Gd8; 30.Gd8 xa, Dd8; 31.Dh5, Dg8; 32.Dh4. Ez dute zulorik aurkitzen, eta jokaldi hau ez da zehatza izan.

32.... Ab7; 33.Ab7,Gb7; 34. Df6 xa. Garaitzeko irrika biziak posizioa gaizki neurtzera eraman ditu txuriak. Ikus koadroa. Berdinketa izan zitekeena beltzen arrakasta bihurtu da, jokaldi sutsu honengatik. 34.... Gg7; 35.Eh2, Da8. Laburbilduz: txurien joko beroaren aurrean, beltzen hoztasun ikaragarria nagusi.

## Ijitoen iharduera Nafarroan (I)

XIX. mendean agertzen diren zenbait datu bakan kenduta, ez dakigu gauza haundirik Euskal Herriko ijitoez. XIX. mendean Rumanian esklabu ugari askatuak gertatu zirenean, ijitoak mordoxka iritsi ziren Euskal Herriara. Agiritatik ixuri denaren arabera, Nafarroan ijitoek gauzatutako iharduera deliktiboa izugarria daukagu. 1506. urteko Tafallako Kontseilaren Akta batean (Jimeno Juriok jasotakoa), agotekin nahasirik agertzen dira eta hiriko hormen barruan bizi izatea galera zuten. 'A los xitanos dichos agotes que ninguno non sea osado de dar nin alo-

gar cassa de dentro de los muros de la villa de Tafalla, so pena de cient florines'. 1549. urtean, Nafarroako Gorteak hasiak dira jada arazoak kezkatzen, ijitoak, diote, lapur eta gezurzale haundiak dira, eta horretarako alderdikide askoren laguntza daukate prest. Horrexegatik hartzen dute erresumatik kanporatzeko erabakia. 1590. urtean Ibañetan zingali batzuren aurka izandako auzi batean, hauek Lurra-ko Jaunarekin tratuetan ibiliak zirela aitortu zuten. Helburua, orduan Biarnekoko Printze eta geroago Frantziako Errege izan zuten Henri IV.a aintzindari

JUANTXO URDIROZ



**Ez usteak zure atean joka**

**1608an, Bortzirikoek, Frantziatik ijito aunitz igaro dela aitortu eta armen bidez eraso ahal ziezaieten eskatzen dute.**


zuten frantziar kalbinistar heresei erasotzeko armadaxo bat sortzea.

1608ean, Bortzirikoek Frantziatik ijito aunitz igaro dela aitortu, eta oihartzuarrek lortua zuten bezala, armen bidez eraso ahal ziezaieten eskatzen dute. Lapurdik eta Nafarroa Behereak zeukaten garrantzi estrategikoa-rengatik gogoko zituzten ijitoek zonalde horiek. Pascual de Iturbidek, Ustaritze ezizenaz ezagutua den ijitoak, epaitu zutelarik, bere buruaren defentsa euskara hutsean egin zuen. Ustaritzek mugaz bestaldean lapurtzen zuenazienda Hegoaldean saltzen omen zuen. Hona hemen Iturbide jaunak epai horretan euskaraz emaniko erantzunak. Galderak zeintsu ziren igar daitezke: —vay

emendira; —egua da orrelaco gauça baçuec guc ecarri guinducen; —bai eguaqi guc jan guinducen yrur ardiak eta urdea; —arrayoçetic beyn çamari bat juan (eraman) guinduen; —vay yrur lagun guinduen; —vay guc eçeçe verçe ijitoric ere va duc Vaztanen; —bay minçatu baliz ylen guindian; —egua da, orrelaco gauça baçuec guc ecarri guinducen; —cer dioc hic Uztariz? Or dituc.

Informazio iturriak, Alicia Stürtze-ren 'Agotak, Juduak eta Ijitoak Euskal Herrian' eta Ibon Sarasolaren 'Contribución y edición de textos antiguos vascos'. Biziki errekomentatzen dugu Alicia Stürtzeren liburua, ezuste historikoak gogoko dituenareztzat.

## Bost Kirola



Asier Larrea  
BARAÑAIN

**B**ost kirola nere herrian jokatzen den pilota lehiaketa bat da. Nere herria Erroko haranean dago, Orreagatik hurbil. Bost kirola 1982an hasi zen, eta lehiaketa honen sortzailea nere herriko taberna izan zen, Herriko Txoko deiturikoa. Urtero jokatzen da, abuztuaren lehen igandean hasi eta urriaren 12an bukatu. Izenak dioen bezalaxe, bost kirol dira: pala motza, larruzko paleta, share, joko-garbi eta esku pilota.

Paletatik hasi, lehena pala motza da. Ez da oso handia, estua eta alboetatik lodia da. Bere pisua mila edo 1.200 gramo bitartean dago, eta jokatzen den pilota handia eta larruzkoa da. Larruzko pala aurrekoa baino handixeagoa da, zabalagoa eta alboetatik estua. 500-700 gramo inguruan dago bere pisua eta erabiltzen den pilota txikia eta larruzkoa da.

Sharea da gutxien ezagutzen dena. Zumez egin dago, raketa baten antzekoa da baina sokak eduki ordez, horren antzeko kordak ditu. Hemen egiten duen bakarra nere herriko artisau bat da eta gero mugan ere beste pertsona batek egiten ditu.


Joko-garbia, aurrekoaren antzera zumez egin dago. Erremontearen antzekoa da eta jolasteko erabiltzen den pilota sharen erabiltzen den bezalakoa da, lodia, handia eta larruzkoa. Bereztasun bakarra bere prezioa da: hamabost mila pezetatik hogeitabost mila arte. Esku pilota ezagunena dugu denok. Hemen pilotek pisu desberdina eduki dezakete eta pilotariak nahi dutena hautatzen dute.

Partidu guztiak hogeitadirira, azkenean denak batu eta gehien dituenak irabazle. Pilotari askok parte hartzen dute, gainera mugaz bestaldekoek ere.

Hamaika edizio hauetatik zazpi Arrosagaraik irabazi ditu. Luzaidekoa da eta arlo guztietan oso ongi moldatzen da. Garailearentzat Uribarrena izeneko artisau baten estatuatxo bat dago, eta

estatua horrek beti adierazten du pilotarekiko zaletasuna eta miresmena.

Iaz Bost Kirolak omenaldi bat jaso zuen Uribarrenaren eskutik: estatua handi bat; eta estatua horretan gizon bat agertzen zen Bost eskukin eta esku baikoitzean kirol bat (pala, share...). Estatua hau herriko sarreran dago kokaturik. Ez dut urte bat ere galtzen lehiaketa hau, eta esan dezaket pilotaren jarraitzaile amorratu bat naizela. Lehiaketa honek jarraitzen badu, urteren batean seguru parte hartuko dudala eta beste lehiakideak ezerezean utziko ditudala.



**B**elar motzeko garai hauetan, ohizko lane-  
tik ateratzen duen errenta ere motz gelditu  
zaio baserritarrari. Honetaz jabeturik, ne-  
kazaritzako jarduera berriei buruzko ikastaroak  
antolatu dituzte Nafarroako Teknika eta Kudea-  
keta Institutuek (ITG), bertako nekazariei eta  
abeltzainei ditu iturri osagarriak eskaintzeko as-  
moz.

## Baserritik eskolara

A.UNANUE / IRUNEA

Ikastaroak '5b' eskualdeetako nekazari eta abeltzainei, eta hauekin bizi direnei zuzenduak daude. ITGko prestakuntza sailak antolatu ditu, Javier Brieba eta Tarsicio Oteizaren ardura-  
pean, baina ez dadila inor izutu, oso praktikoak direla ziurtatu di-  
gute eta. Erdi eskola, erdi tailer, irakasleak arlo bakoitzeko pro-  
fesionalak dira.

Lehen urratsa iaz eman zuten, eta aurten nabarmen zabaldu dute eskaintza. Botikan bezala, dene-  
tarik dago. Osotara, hogeita ha-  
mairu ikastaro, bost arlo berezitan. Nekazaritza arloan, esate ba-  
terako, aukera hauek daude: fru-  
ta-arbolen kimatzea edo inaus-  
tea, sagardotako sagarra, oihan-  
gintza, baratzezaintza intentsi-  
boa, fruitu txikien laborantza, sendabelarrak eta landare urrin-  
tsuak, mintegiak (basolandareak eta apaingarriak), nekazaritza ekologikoa eta zizagintza.

Abeltzaintzari dagokionez, ferratzea, ardi-moztea, abereen azazkalen zainketa, mendiko zerriak, ahate gizenzea, baserri-  
ko oilaskoak eta ehizako anima-  
lien haztegiei buruzko ikastaroak daude aukeran. Landa-turis-

moaren inguruan hiru eskaintza daude: landetxeak, mendiko gi-  
dariak eta gainean ibiltzeko zal-  
diak trebatzeko ikastaroak. Ai-  
patzekoa da, halaber, etxean hes-  
tebeteak, mermeladak, pattarra, ardi-gaztak, behi-gaztak, esne-  
postreak edota barazki-kontser-  
bak nola egiten diren ikasteko para-  
da eskaintzen dela.

Badira bestelako aukerak ere: nekazaritzako mekanika eta solda-  
dura, erlezaintza, zakur hezi-  
keta, merkaturatzea eta marketi-  
na, artisautza eta, azkenik, neka-  
zaritza eta ingurugiroa.

Dohainik dira, Nafarroako Gobernuaren eta Europako Fon-  
do Sozialaren dirulaguntzei es-  
ker, baina izena emanez gero serio-  
tasun pixka bat eskatzen da. Iaz 300 lagunek —100 inguru emakumeak— hartu zuten parte. «Emakumeak izugarriko garrantzia du zonalde hauetan», dio Oteizak, «landa-turismoa dela eta, enpresari potentzial pila bat deskubritu dugu baserrietan». Hori baita ikastaroen helburua: nekazariei eta abeltzainei jar-  
duera berriak eta osagarriak iraka-  
stea, usadioko jarduerak utzi gabe beren errentak hobetzeko aukera izan dezaten.

Horrela sortu dute, iazko ikas-



Hogeita hamahiru ikastaro izango dira, bost ataletan banatuta.

taroen eraginez, arbola mintegi bat Zaraitzu aldean, hala nola zaldi zentro bat. Abian dago, ha-  
laber, etxean egindako mermeladak merkaturatzeko beste proiektu bat, landa-turismoaren gorakada ez aipatzeagatik. Bri-  
baren esanetan, «duela urte ba-

tzuk pentsaezina zen, baina da-  
goeneko 200 landetxe ditugu Nafarroan. Honek adierazten du pentsamoldeak ere aldatzen ari direla. Garai batean denok hondartzako turismoa genuen bu-  
ruan eta nekazari bati ez zitzaion bururatzeko madrildar bat, kasu,

bere baserrira joan zitekeenik oportet». Hasierako erreze-  
loak gaudituta, landa-turismoa indarrez errotzen ari da. Diru itu-  
rri berri bat ezezik, baserriko bi-  
zimodua arintzeko ere lagungarri dela dio Briebak. Jendea bere ba-  
kardadeaz jabetu omen da eta, bisitariei esker, eguneroko erru-  
tina alde batera uzteko aitzakia aurkitu du.

Aurtengo berrikuntzen artean azpimarratzekoak dira etxeko produktuen fabrikazioari buruzko ikastaroak. Etxeko produk-  
tuen komertzializazioa Nafarroan oraindik arautzeko dagoenez, proiektu txikiak ere in-  
dustria araudiari lotuta daude. Nolanahi ere, egoera laster alda-  
tuko da, Nekazaritzako Saila araudi berri bat lantzen ari da eta. Horrela, ahateak gizenzen di-  
tuztenek etxean egindako pateak edo foie saldu ahal izango dute aurki.

Ikastaroak urtean zehar izango dira. Erreferentzia gisa hasiera data batzuk zehaztu dituzte, baina eskaeren arabera alda litezke. Modu berean, jasotako eskaeren arabera erabakiko da ikastaro bakoitza non izango den —ziurrenik, Doneztebe, Erremendia, Irurtzun, Irunberri eta Iruñean bertan—. Izena emateko, ITGko Sanduzelaiko bulegoetara jo dezakezue (San Jorge etorbidea 81, behégaina. Tel. 27 80 11).

JOXE LACALLE

## 'Ardatza' berrituaren aurkezpena

EHNEK 'Ardatza' berritua aurkeztu zuen astelehenean. Nekazari sindikatuak nabarmen loditu eta nafartu du bere aldizkaria: aurrerantzean Nafarroako irakurleek hiru orrialde oso izango dituzte bertako berriekin. Gainera, kolaboratzaile berrien artean Jose Mari Lander nekazaria eta Xatur Yanguas apaiza ageri dira, nafarrak biak.

Aurkezpen ekitaldian Jose Cruz Perez Lapazaran Nekazaritzako sailburua izan zen —argazkian, Manu Marañon, Mikel Petirena eta 'Ardatza-ko' arduradunekin—



# Nafarroa bihotzean

LETXEZAHARRETA / BAIONA

Nafarroa Behereko Uhar-te-Garazin ehunka bilduak ziren lagunen artean joan zen asteartean Jakes Aurnagueren ehorzketak iragan ziren. Abertzale agertu zena azken hamar urte hauetan, hauteskunde eta ekitaldi publiko ugarietan, nafarra zen bihotz eta gogominetan. Sorterriaren maitasunak hazi zuena eta batasunaren egilea etengabeki izan zena Euskal Herriak galdu du.

Ohitura da, edonon, norbait zendu ordukotz, haren goresmen mugagabeen egitea. Aurnagueren kasuan bizi zelarik ere bere gizatasun eta solaskidetasunak aipatzen ziren. Abertzale plazan agertzea ez da urrats erraza edonorentzat Iparraldean: botere guzien etsai batentzat hartua da orduan berehala. Ehorzketan mezan apaizak bere «kuraia» go-raipatu zuen. Kuraia hori ukan zuen eskolaemaile zenak bere herriaren errekaratzea senditu zuelarik barne-barnetik.

Euskararen egoeraz Iparraldean egin lehen inkesta 'sozio-linguistikoen' eremaitaririk izan zen. Denak harritu ziren bere emaitzez: Iparraldeko gune euskaldunenean euskara galbide zurreran zela demostratu zuen. Lehen mailako haurren eta kolegioetako artean egin inkestak argi erakusten zuen euskara minorizatu zela, duela 15 urte. Oharpen larri horren bere baitan deiadarra sortu zuen. Nortasun galtzeak oldar gaitza sortu zuen bere baitan. Erran daiteke bere bizitzako bihur-gune nagusietarik orduan gertatu zela.

Baionan, bere haurzaroan zen giro euskaldunaz mintzatu zen 1992ko agiri batean, erre-gio hauteskundeetarako: «Bidegarai 'Otxoki', Pekotx esneketaria, Irigoin janari saltzailea, Larre zapataina edo Zamora okina ene haur denborako pertsonaiak ziren. Denek bi edo hiru hizkuntza mintzaten zituzten. Ene aitak komisaldegian egunero euskara laneko hizkuntza zuen. Gaur

mintzaira horik galtzen ari dira eta Baionak arima galdu du».

«Mintzaira baten desager-tzea ezin neurtzeko galtzea da beti munduko kulturaren aberastasun eta desberdintasunarentzat» zioen garaztarrak. Bere ustea zen «euskaldunen eskubidea, edozein populuren antzera, bere hizkuntzan bizitzeko eta mintzatzeko eskubide zuzen eta naturala da».

## NAFARROAKO BATASUNAREN ALDE

Jakes Aurnaguek bi estaturen artean banatua den Nafarroaren alde lan egin zuen, harremanak berotu nahiz. Politika mailan horren itzulpena izan zen Nafarroako hauteskundeetan Txomin Arranbide urepeldarraren bultzatzea partaide izan zedin HBren listan, berak aukeratu Euskal Batasunetik hurbil zen alderdiaren izenean. 'Enbata' aldizkarian, 1991ko apirilean Nafarroaren alderako nahikaria azaldu zuen.

«Nafarroa Behereko asko bezala, Hego Nafarroarekin harreman pertsonalak badauz-

kat. Ene amona, Petra Lastiri, Garralda herrikoa zen, Orreagatik hurbil. Ene izena daukan etxea Iruretan da, aspaldiko mendeak geroztik». Urtero egiten den Nafarroaren Eguna Baigorriin aipatu zuen «gure kultura zaharraren baloreen haritik» zoala erranez «gure kultura folklorizatzen dutenen alderantzizkoa».

Arranbideren kandidaturarekin, bere ustez «berreskuratu batasun horren ikurra zoragarria da: Historiaren gorpila itzulikatzen ari da eta hainbeste denboraz etxetik baztertu seigarren merindadearen etxera itzultzea da». Aurnague poztzen zen bi Nafarroen bata-

sun nahiaz: «Oroit naiz duela 20 urte, Iruñeko nafartar batzuek ez zutela entzun nahi ere Nafarroa Behereaz. Foru Aldundiak Nafarroa Behereko Forua, Paben 1631n idatzia, argitaratu nahi ukan zutelarik 'ultranabarristek' 1968an publikatu testuaren banaketa blokeatu zuten! Jaun horientzat XVII. mendeko testu hau oraindik abertzaleegia zitekeen».

Etorkizunari begira zioen «euforia errazegira ez da erori behar» zeren «aldakuntzak ez baitira hain abiadura handikoak izanen baina Parise edo Madrilgo eta Gasteizko teknokratek uste duten baino lasterragoak izanen dira».

## EUSKAL HERRIAREN MAITASUNEZ

Jakes Aurnagueren bizia, militante askorena zen baina maitasunak argituetarik zela ageri zen. Bere hauteskundeetako papere-tan, nahiz talde baten izenean beti mintzo zen, bere fedea agertzen zuen. Bere lehen agerpen publikoan, abertzale alderdi baten izenean zioen 1985ean: «Nahiz batzuetan etsipenak erasotzen digun, ene abertzaletasuna, erran nahi baita ene herriaren eta ene populuaren alde dudun maitasun sakonak itxaropena atxiki behar dela pentsatzera bultzatzen nau».

Bere konpromezua azalduz gehitzen zuen «bazter egotea, elkor eta itsu, bere baitako ziurtasun txikiakin ez da etorkizunerako aterabidea. Kaos ekonomikoa, euskararen galtzea, etsipena, gure atean ditugu, inor ez da horretatik eskapatzen ahalko eta gure haurrak are gutiago». Horri aurre egiteko zioen «laster ekin behar diogu eta gure indar soilekin kontatu».

Ehorzketen denboran Alkatertsolariak kantatu zion: «Umiltasunez bezi, zer gizontasuna / Herriak gogoan du egin duzuna / Zure mezuak gutan badu oihartzuna / Eskainiz guzietan zure maitasuna / Lagunt egin dezagun euskal batasuna».

Jakes Aurnaguek bi estaturen artean banatua den Nafarroaren alde egin zuen lan, harremanak berotu nahiz.



JUAN CARLOS RUIZ

Jakes Aurnague

EBko ARDURADUN ZENA



## SOSLATA

### Irakasle abertzalea

Baionan sortu zen 1934.eko martxoaren 22an, Lahubiaga auzoan, hiriaren serreran, San Leongo kirol zelaietik hurbil. Aita euskalduna zuen, Baionako komisaldegian udalzain. Haurtzaroan euskara galdu zuen Jakes Aurnague baionarrak. Hargatik, azken hamar urte hauetan berriro bere baitaratu zuen eta solasaldi egunerokoetan erabiltzen zuen. Bizi gehiena Garazi aldean eman zuen, errient, lehen mailako eskoletan maisu. Alderdi Sozialistako kide izan zen hau boterera iritsi arte. Orduan abertzaleekin bat egin zuen. Azken urte hauetan Hegoaldeko erakundeekin harremanetan zen eta alderdi politiko guztiekin negoziatzaile agertzen zen.

## NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

